

Kaixo,

Latxa ardiaren artilea azken urteetan arazo bihurtu da artzainontzat. Horri lotuta jakin beharrekoa da, artileak, Europako legedien baitan Sandach 3 izendapena daukala, eta horregatik, bere kudeaketa Eusko Jaurlaritzaren 60/2012 Dekretuan legez araututa dauden baldintza batzuetan egin behar dela.

Hau horrela izanik, Gipuzkoako Foru Aldundia, ardi sektoreko elkarteak, nekazaritzako sindikatuak eta Landa Garapeneko elkarteak gaia aztertu eta hainbat buelta eman ondoren, bilketa zerbitzua baimenduta dagoen Belauntzako Cortes enpresaren bidez emango da. Honek, artileak jaso eta Nafarroako Artaxonan dagoen konpostatze planta batetara garraiatuko ditu.

Urola kostan, artilea jasotzeko prozedura:

- *Non:* Artilea Azpeitiko **Lapatx zabortegira** eraman beharko da.
(Tolosa errepidea, z/g, 20730 Azpeitia, Guipuzkoa
Tfnoa: 943 815 505)
- *Noiz:* **urriaren 21 – 30 bitartean** (biak barne), Goizeko **08:00**etatik **13:00**etara eta arratsaldeko **15:00**etatik **18:00**etara.
- *Nola:* Zaku handietan **sartuta eta brida bidez itxita**. Zaku eta bridak behar izan ezkeri **Lapatx-en bertan eskuratu ahal izango dira**.
- *Ordainketa:* artilearen kudeaketagatik **0'115€/Kg. + %10eko BEZ-a**. Honi, **%50eko deskontua** egingo zaio fakturan, Landaoraren bitartez Gipuzkoako Foru Aldundiak lagunduko du eta.
- *Erraztu beharreko datuak:* **Txartel berdea** eta **NAN-a** edota **IFZ**.

!! Jasotako faktura, artilea modu egoki batean kudeatu denaren agiri bezala erabili ahal izango da.

[Kokapena hemen](#)



!! 100 ardi baino gehiago duten artzainek, artilea etxean bertan jasotzeko aukera izango dute 30€ + 0'115€/Kg. + %10eko BEZ-a ordainduta. Horretarako, Urkomerekin jarri harremanetan.

Azpeitian, 2019ko irailaren 30ean

- !! Zerbitzu honen argibide gehiagorako, *Urkome Landa Garapen Elkartera* zuzendu zaitezke 943816500 telefono zenbakian edota urkome@urkome.eus posta elektronikoko helbidean.**